



Kale Zaharrene behekaldia gerraosteko lehenengo hamarkadetan

Oraintxe barrizketan diharduen **Lizaur**arren etxetik ataratako argazki honek, hain antxiñakua ezpada be, Kale Zaharreko barrenaldian azkenengo lau hamarkadetan izan diran kanbixuak ikusteko aukera ederra eskintzen dosku. Eskumako lehenengo etxia 1925ian eraiki zan beste bi etxe txikik okupaiten ebein orubian, eta orainddiok be holaxe jarraitetan dau. Hurrengua, barriz, Jose Maria **Sarria** jaunak jaso eragin eben 1850ian, baiña gerora urte askuan Mikelezkua baserriko **Elortondotarra**na izan zan; 1971 aldera bota zan eta, aldameneko ortua be aprobetxauaz, bederatz bi etxe-bizitza moldau ditue. Hirugarrena Juan Karlos **Alzaa** alkate famauaren aginduz egindakua da 1883an beste etxe bat eguen lekuan; kanpotik behintzat, bardintsu dago. Laugarren etxia, guardazibillen **kuartela** izan zana, 1924kua dogu; **Iturmenditarrena** zan eraikuntza honek, ez eben, egixa esateko, urte askuan irau: kuartela estaziño aldera eruan eta gero, 80ko hamarkadan orain ikusi geinkien bizitzak eraiki zittuan lehenguen ordez.

Segidan, eta kuartelak ezkutaiten dauen etxe baten onduan, **Eperretxena** agerketan xaku: dozenerdi bat urte lehenago konponduta eguen; aurretik beheko partia eta pisu bakarra eukan. Hurrengo etxe zurixa **Kastillona** dogu, azpikaldian arotzerixia dakola, gerotxuago tabernia izango zan lokalian. Azkenengo bixak gaur egun kanpotik lehenetan baldin badagoz, ondorengo hirurak bota barri dira, bi behebaruko bizitza-sailla jasoteko; fotografixiareen sasoiari **Madinazkoitia**, **Sansinenea**, **Aranburu**, **Errasti**, **Artza**, **Galfarsoro**, **Biaín** eta **Aberasturitar**rak bizi ziran hiru etxe horreitan. Erdizka ikusten dan azkenengo etxia **Mendianekua** da; honek be, orain beste jabe batzuen izan arren, orduko itxuria gorde dau kanpoko aldetik.

Kaliak berak aparteko komentariuxa merezi dau, Zorua harrizkua da. *Adokiñak*, herri-barruko leku gehixenetan lez, 1957-1959 bittartian kendu edo tapau ziran. Areka ondoko espaloiak harlosazkuak dittugu. Baiña harrigarrixena espaloietatik etxietarañoko erreka-harriz estalitako tartiaren zabaleria da. Garai haretan apenas pasaiten zan kotxerik; horregatik, auzoko mutikotiak *futbolian* eta neskatillak *soka-saltoka* edo *zankarranketan* trankil asko jarduten geben kalian. Farolak erdi-erdixan dagoz, eta ez etxietako hormairi erantsitta, oraingo moduan. Ezkerrian agiri dan etxe-zatixa **Sarrixenekuari** dagokixo; konpondu barri zan etxetzar honi hirugarren pisua gehitu xakon orduantxe. Esan daigun, azkenik, atzian ikusi geinkien agustiñuetako *kanpantorria* barri-barrixa dogula; elizierekin batera jaso zana, jausteko arriskuan eguelako, 1943an bota bihar izan ebein; beste hau 1951-1952 bittartian eraikitakua da. Horrenbeste datu eta urterekin, honezkero konturatuko zifiñan noizkua dan argazkixa. Bai, bai, asmau dozue: 1952-1953 urte ingurukua.

J. E.
Fotografixia Lizaur-Gomendio fondokua da eta argibidiak
Juanito Beitia, Maixel Elortza eta Xabier Zelaiarenak.